

Filipe Vasconcelos • Coimbrako Unibertsitateko ikerlaria

«Boterean dauden alderdi guztiek dute kutsu nazionalista»

Vasconcelosen arabera, II. Mundu Gerrak nazionalismoekiko mesfidantza zabaldu zuen, eta horrek eta agintean dauden alderdien jokabideak estaturik gabeko nazioen eskaeren gaineko ikuspegi ezkorra handitu dute.

Arantxa Elizegi

Beste askoren kasuan bezala, Coimbrako Unibertsitateko ikerlari eta Nazioarteko Gatazketan doktore Filipe Vasconcelosen kasuan ere, Madrildik iritsizatu albisteek baldintzatu zuten nazionalismoekiko haren harremana. Ideologia horri buruzko tesia egiteko Euskal Herrira eta Kataluniara joatea egokitu zitzaionean, ordea, bestelako irizpide batekin egin zuen topo. «Orduan oharu nintzen, arazoak bazuela beste alde bat, Espainiako Estatuarena, zeinak immobilismoari eusten dion».

G Tesian bi nazionalismo mota aipatzen dituzu: estaturik gabekoa bat eta instituzionalizatua bestea.

E Pentsan argi ikusten da, ez bakarrik Espainiakoan. Egileek nazionalismo txiki edo estaturik gabeko nazionalismotzat jotzen dituzten horiek euren buruak nazionalista gisa deskribatzen dituzte. Horiek dira, esaterako, euskal nazionalismoaren eta Kataluniakoaren kasuak. Beste aldean daude nazionalismo handiak, jadanik estatu bat dutenak. Hori da Espainiaren kasua. Azken horiek, ordea, oso gutxitan jotzen dute euren burua nazionalizatatzat. Azken horiek ahalegina egin ohi dute euren menpeko lurraldeak estu lotuta edukitzeko, baita, eta batez ere, horien artean bestelako nazionalismoak baldin badaude ere.

G Nazionalismoek, gainera, badute halako kutsu ezkor bat.

E Bai, halaxe da. Nazionalismoek oro har oso kutsu negatiboa dute, batez ere, II. Mundu Gerraz geroztik; izan ere, faxismoak, nazismoak, Portugalgo korporatibismoak eta frankismoak ere ideologia hori zuten oinarri. Ondorioz, nazionalismo handiak ez daude batera ondo ikusiak. Bestetik, 1990eko urteetan Sobietar Batasunaren gainbeherarekin eta Ju-



IGANDEA

goslaviako gatazkarekin horiekin jarraera are ezkorrago bilakatu zen, batez ere, Bosnia eta Herzegovinako gerrarekin eta Kroazia eta Serbiaren arteko gatazkarekin.

G Horregatik dute nazionalismo handiek euren ideologia ukatzeko beharra?

E Hori izan da tesiaren ondorioetako bat. Izan ere, ikusi ahal izan dugu Jose Maria Aznarren agintaldietan nola bere programetan eta agerraldietan ere oso gogor kritikitzen zuten nazionalismoa; baina, aldi berean, goratu egiten zuten Espainiako nazioa, baita haren historia ere. Beraz, alde batetik salatzen du nazionalismoek Espainia *apurtuko* dutela eta herria bereizten ari direla, eta, bestetik, goretisi egiten du Espainia nazio gisara. Hau da, diskurtso nazionalista erabiltzen du ideia hori bera ukatzeko. Beraz, lurralde txikiagoetako alderdiek, EAJ kasu, aitorzen dutenazionalista direla, eta horren arabera jokatzeko dute euren lurraldearentzako autonomia edo balizko independentzia eskatuz. Beste batzuek, aldiz, Alderdi Popularrak, esaterako, ez dute euren burua nazionalizatatzat aitorzen, baina ideologia horren baitan kokatzen dira, euren nazioa defendatuz. Eta gero badaude beste batzuk, PSOE esate-

rako, zeintzuek ez diren nazionalizatatzat aitorzen eta ez duten euren hitzaldietan ere ideologia hori erabiltzen, baina erabakiak hartzeko garaian nazio bat defendatzea duten helburu. Hori da, besteak beste, Jose Luis Rodriguez Zapateroren agintaldian gertatu zena.

G Esan genezake, orduan, alderdi guztiak direla funtsean nazionalistak?

E Boterea estatu-nazio baten edo erkidego baten inguruan bildu asmo duten guztiak dute kutsu nazionalista. Gero badaude ezkereragorako beste korrante batzuk, IUren federalismoa, adibidez. Hor dago baita ere PSC edo Kataluniako Alderdi Sozialista ere, zeintzuek nahasiago duten euren ildoa. Baina boterean dauden alderdien artean, esan genezake guztiak dutela kutsu nazionalista.

G Tesian alderatu egiten dituzu Euskal Herriko eta Kataluniako nazionalismoak indarkeriaren erabile-ri kontuan hartuta.

E Argi dagoena da indarkeriak kaltetu egin diola euskal nazionalismoaren ibilbideari, Espainiako markoaren barruan. Egia da Euskal Autonomia Erkidegoak 78ko Konstituzioa onartu osteko lehen urteetan lortu dituela hainbat eskumen, besteak beste, zerga autonomia, baina hortik aurrera ez da beste aurrerapausorik eman, eta beste indarkeriaren ondorio izan da. Euskal estatutua bera ere ez da berriz berrikusi 80ko hamarkadaz geroztik, eta aldiz, Kataluniako bai, nahiz eta gero haren zati bat, Espainiako Konstituzioaren aurkakoa zelako aitzakian, aldatu behar izan. Bestetik, Madrilek errazago eman dizkio zenbait gauza Kataluniari Euskadiri baino, beti indarkeria argudio gisara erabilia. Hor beti izan da oztupo Euskadiri buruzko eztabaia instituzionalen garaian, bai eskumen gehiago ematerakoan,



2010eko uztailean, Bartzelonan, independentziaren alde eginiko manifestazioa. ALBERTO ESTEVEZ/EFE

baita nazionalisten bestelako eskaerak onartzerakoan ere. Zapatero agintera heldu zenean ere, biekien eskumenei buruz hitz egiteko prest agertu zen, baina Euskadiren kasuan lehenik indarkeria amaitu behar zela aldarrikatu zuen, eta Kataluniarekin, berriz, negoziatzen hasteko prest agertu zen.

G Baina Katalunian duela gutxiokoa da nazionalismoen gorakada.

E Kataluniako kasua ulertzeko, ekonomiaren faktorea oinarritzakoa da. Katalanok oharu diraz zergen gaineko eskumenik ez iraiteak esan nahi duela BPGrako diru gehien ematen duten erkidegoa izan ere haiek emandako diruaren zati handi bat Madrilen geratzen dela edo gutxiago ordaintzen duten erkidegoetara bideratzen dutela; eta egoera horrek okerrera egin du krisiarekin.

G Zein da prentsaren rola nazionalismoen arteko borroka honetan?

E Angel Castiñeira Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasleak esan zidan moduan, «Madrildik egunero igortzen dituzte uhinak menpeko lurraldeetara». Horrekin esan nahi dena da egunero egiten dutela ahalegina haien aldeko informazioa hedada dadin Espainiaren menpeko eremueta. Hemen ikusi dudana izan da Espainiako bi nazionalismoen arteko borroka prentsaren bidez antolatzen dela. Hori oso argi ikusi zen Zapateroren eta PPren arteko borrokan; izan ere, estatuko egunkari handiak —*El País*, *El Mundo*, *La Vanguardia* eta *Abc*— bat datoz Espainiak bere batasunari eutsi behar diola;

beraz, oinarrian denak dira nazionalistak, nahiz eta euren artean desberdintasun ideologikoak handiak izan. Hori oso garrantzitsua da eurek hedatzen duten informazioa herritar askorengana heltzen delako, eta, Portugalen esaten den moduan, gezur bat eskotan errepikatzen denean egia bihurtzen da. Horren adibide da Zapateroren garaiko «Espainia hausten ari da» esaldiak egia itxura hartu izana eta hortik herritarrek kontserbadoreen aldera jo izana.

G Tesi hau egin eta gero Euskal Herriarekiko eta Kataluniarekiko zure ikuspuntua aldatu egin da?

E Ni urte asko bizi izan naiz Portugal eta Andaluzia arteko mugan, Vilarrealen, eta ia 30 urterekin joan nintzen Euskal Herrira. Baina hona heldu aurretik pentsatzen nuen hemen Irlandan iparraldean bezala bizi zela jendea, alegia, noiz atentatu bat gertatuko beldurrez eta tankeak kalean ikusiz. Baina horko egoera gertutik ezagutu ondoren, nire ikuspegia aldatu zen, eta batez ere ulertu nuen Espainiako arazo ez dela Katalunia eta Euskadiko nazionalisten autonomia gehiagoren eskaerena, edo ez behintzat hori bakarrik, baita Espainiaren mugitzeko asmorik eza ere. Gerora ikusten joan naiz baita ere nola euskal nazionalismoa indarkeriatik urruntzen joan den, eta, hala ere, Madrildik zetozten albisteek blokeatu egiten zuten informazio hori; bazirudien ez zutela besteek hango mugimenduen berri izaterik nahi.